

# ZTE

## Skate Pro



Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua



# ZTE Skate Pro

## Bizkor hasteko gida

## LEGE-INFORMAZIOA

**Copyright © 2012 ZTE CORPORATION.**

### **Eskubide guztiak erreserbatuta.**

Eskuliburu honen zati bat ere ezin da aipatu, erreproduzitu, itzuli edo erabili inolako modutan edo inolako bitartekoren bidez (elektronikoa edo mekanikoa, fotokopiak eta mikrofilmak barne) ZTE Corporationen aurretiazko idatzizko baimenik gabe.

ZTE Corporationek eskubidea du inprimatzean gertatutako akatsak zuzentzeko, baita produktuaren zehaztapenak aurretik abisatu gabe eguneratzeko ere.



Bluetooth® marka komertzialaren eta logotipoaren jabea Bluetooth SIG, Inc. da, eta ZTE Corporationek lizentziarekin erabiltzen ditu. Beste marka eta izen komertzial ere beren jabeenak dira.

Bertsio-zk.: R 1.4

Edizio-data: 2012ko iraila

Eskuliburu-zk.: 07958450xxxx

# Ezagutu zure gailua



## **Pizteko tekla**

- Luze sakatu pizteko tekla zure telefonoa pizteko, itzaltzeko, isilarazteko edo hegazkin-moduan jartzeko.
- Sakatu behin pizteko tekla zure telefonoa blokeatzeko.
- Telefonoa blokeatuta badago, sakatu behin pizteko tekla telefonoa desblokeatzeko.

## **Bolumena igotzea / jaistea**

Sakatu bolumen-tekla, eta luze sakatu teklaren ertzetako bat bolumena igotzeko edo jaisteko.

## **Menu-tekla**

Ukitu menu-tekla pantailaren edo aplikazioaren aukeretara sartzeko.

## **Hasierako tekla**

- Ukitu tekla hau edozein aplikazio edo pantailatik pantaila nagusira itzultzeko.
- Luze sakatu azkenaldian erabili dituzun aplikazioak ikusteko.

## **Atzera tekla**

Sakatu tekla hau aurreko orrira joateko.

## **Bilaketa-tekla**

- Ukitu tekla hau bilaketa-laukitxo irekitzeko.
- Martxan jartzea
- Kendu atzeko estalkia.

# Martxan jartzea

Kendu atzeko estalkia



Sartu SIM txartela



Sartu microSD txartela



**Oharra:** MicroSD logotipoa  SD Card Associationen marka erregistratua da.

Sartu bateria



Kargatu zure telefonoa



## Telefonoa piztea eta itzaltzea

Egiatzatu SIM txartela telefono mugikorrean sartuta dagoela eta bateria kargatuta dagoela.

- Luze sakatu pizteko tekla, telefonoa pizteko.
- Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko tekla, eta hautatu **Apagar** > **Aceptar**.

## Jakin ezazu zure telefonoa nola dagoen

Egoera-barra pantaila nagusiko goiko aldean dago. Han bistaritzen dira gailuaren egoerak eta eskuragarri dauden zerbitzuak. Hemen ikus daitezke ikonoetako batzuk eta haien esanahiak.

	GPRSa konektatuta		Ez dago seinalerik
	EDGE konektatuta		Seinalearen intentsitatea
	3G konektatuta		Modu isila
	Hegazkin-modua		Bibrazio-modua
	Bateria hutsik		Bluetootha piztuta
	Bateria baxua		WiFi sareetarako konexioa
	Bateria partzialki kargatuta		Entzungailuak konektatuta
	Bateria beteta		Alarma aktibatuta
	Bateria kargatzen		SIM txartela ez dago sartuta

## Jakinarazpenen kudeaketa



Egoera-barra pantaila nagusiko goiko aldean bistaratzen da. Ezkerreko aldean, jakinarazpen-alertak ageri dira, beren ikonoekin.

Jakinarazpenak instalatutako aplikazioen araberakoak dira, eta egoera-barra ukitu eta beheantz arrastatu dezakezu informazio gehiago eskuratzeko.





	SMS berria		MicroSD desaktibatuta
	MMS berria		MicroSD aterata
	Mezu elektronik berria		Hurrengo gertaera
	Gmaileko mezu berria		Deia zain
	Google Talkeko berehalako mezu berria		WiFi sare berria detektatu da
	Arazoa SMS/MMSa entregatzean		Datuak deskargatzen
	Dei galdua		Datuak bidaltzen
	Deia martxan		USB modema martxan
	USBa konektatuta		Nire WiFi eremua edo zuzeneko WiFi-a piztuta
	Musika erreproduzitzea		GPSa piztuta
	Eguneraketak eskuragarri		

# Deiak egitea


- Sakatu hasierako tekla, eta, gero,  telefonoaren beheko aldean dago).
- Sartu telefono-zenbakia, eta sakatu  .


# SIM txarteleko kontaktuak inportatzea

Telefonoan gordetako kontaktuek informazio gehiago izan dezakete. Izena eta telefonoa jasotzeaz gain, helbide elektronikoa, kontaktuaren irudia eta helbidea ere jaso ditzakete. Kontaktuak SIM txartelean gordeta badauzkazu, telefonora inportatzeko gomendatzen dizugu.

- Sakatu hasierako tekla, eta, gero,  telefonoaren beheko aldean dago).
- Ukitu menu-tekla > **Importar /exportar** > **Importar contactos de la tarjeta SIM.**
- Hautatu SIMeko kontaktuak zer kontutara gehitu nahi dituzun.
- Ukitu inportatu nahi dituzun SIMeko kontaktu guztiak, eta sakatu  tekla.

# Argazkiak ateratzea


- Ukitu hasierako tekla >  > **Cámara.**
- Jarri kamera subjektuari begira, eta egin egin beharreko doikuntzak.



Zenbakia	Funtzioa
1	Luze sakatu eta lerratu puntu urdina, distira doitzeko.
2	Luze sakatu eta lerratu zirkulua, hurbiltzeko edo urruntzeko.
3	Kameraren doikuntzak aldatzeko.
4	Bideokamerara aldatzeko.
5	Argazki bat ateratzeko.
6	Ateratako argazkiak eta bideoak ikusteko.
7	Uneko konfigurazio-egoera.



Ukitu, arin, botoi urdina 

## Bideoak grabatzea

- Ukitu hasierako tekla >  **Cámara**, eta aldatu bideokamerara.
- Jarri kamera subjektuari begira, eta egin egin beharreko doikuntzak.




Zenbakia	Funtzioa
1	Luze sakatu zirkulua, eta lerratu, hurbiltzeko edo urruntzeko.
2	Bideokameraren doikuntzak aldatzeko.
3	Kamerara aldatzeko.
4	Bideo grabatzeko.
5	Ateratako argazkiak eta bideoak ikusteko.

- Ukitu  grabatzen hasteko.
- Ukitu  grabazioa geldiarazteko.


**Aholkua:** Grabazioa martxan dagoen bitartean, pantaila ukitu, eta markoa gorde dezakezu, argazki gisa.

## Musika erreproduzitzea

- Ukitu hasierako tekla >  > **Play Music**.
- Ukitu maila (adibidez, **Artistas** edo **Álbumes**) entzun nahi duzun abestia bilatzeko.
- Ukitu entzun nahi duzun abestia.



Zenbakia	Funtzioa
1	Ukitu uneko erreprodukzio-zerrenda ikusteko.
2	Bildumaren azala
3	Aukera hauetarako: atzera egiteko, abestiak entzun gabe pasatzeko, erreprodukzioa eteteko edo berrabiarazteko, ausazko erreprodukzioa aktibatze edo errepikatze. Arrastatu barra abestiaren edozein zatitara joateko.
4	Musika bilatzea

Sakatu bildumaren azala, abestiari buruzko informazioa edo  aukera gehiago bistaratzeko.

Zenbakia	Funtzioa
5	Abestiari, artistari eta bildumari buruzko informazioa. Luze sakatu abestia, horrekin erlazionatutako informazioa bilatzeko.
6	Abestiaren balorazioa

# Bideoak erreproduzitzea

Ukitu hasierako tekla >  > **Repr. vídeo**

Sakatu bideo-fitxategi bat ikusteko.

Klik egin pantailan, bideoaren kontrol-panela bistartzeko. Bideoa eteteko edo bideoaren edozein zatitara joateko erabil dezakezu.

# Posta-kontuak eranstea

Googleren eta Microsoft Exchange ActiveSyncen zenbait kontu erants ditzakezu. Beste kontu batzuk ere erants ditzakezu, zure gailuan instalatuta dituzun aplikazioen arabera. Kontuetako posta elektronikoa, egutegia, kontaktuak eta beste zenbait informazio sinkroniza dezakezu gailuaren eta sarearen artean.

- Ukitu hasierako tekla > menu-tekla > **Ajustes del sistema > Cuentas y sincronización.**
- Ukitu **Añadir cuenta.**
- Ukitu erantsi nahi duzun kontu-mota.
- Eman pantailan bistaritzen diren pausoak eta sartu kontuaren informazioa. Kontu gehienetan, erabiltzaile-izena eta pasahitza behar dira, baina baliteke xehetasunak desberdinak izatea. Halaber, baliteke zure euskarri informatikoari edo sistemaren administratzaileari buruzko informazioa behar izatea.

Kontua ondo eransten denean, **Cuentas y sincronización** zerrendan bistaraten da.

# Pantaila blokeatzea

Zure telefonoa babestu dezakezu, pantaila blokeatuta. Eredu bat sor daiteke edo zenbakiz osatutako PIN bat edo pasahitz bat sartu.

- Ukitu hasierako tekla > menu-tekla > **Ajustes del sistema > Seguridad > Bloqueo de pantalla.**
- Ukitu **Patrón, PIN** edo **Contraseña.**

<b>Eredua</b>	Pantaila desblokeatzeko eredu bat sortu behar duzu. Lehen aldia baldin bada, desblokeatzeko eredu sortzeari buruzko gidatxo bat bistaratuko da. Eta, ondoren, zure eredu sor dezakezu bizkor.
<b>PINa edo pasahitza</b>	Ezarri zenbakiz osatutako PIN bat edo pasahitz bat, pantaila desblokeatzeko.

## PCra konektatzea

Zure gailua ordenagailu batera konekta dezakezu USB kable baten bidez, eta musika, argazkiak eta beste fitxategi batzuk batetik bestera transferitu. Zure gailuan bertan edo microSD txartelean gorde ditzakezu fitxategiak.

- Luze sakatu pantailaren beheko aldean dagoen egoera-barra, eta lerra ezazu beheara.



- Ukitu  > **Conexión de ordenador USB.**

- Hauta ezazu aukera hauetako bat:

**Dispositivo de Media (MTP):** Windowsen, edo Macen Android File Transfer erabiliz multimedia-fitxategiak transferitzeko.

**Cámara (PTP):** MTP onartzen ez duten ordenagailuetara kameraren softwarearekin argazkiak eta fitxategiak transferitzeko.

Gailua ordenagailutik deskonektatzeko, amaitzen duenean, USB kablea askatu behar duzu.

# Interneteko konexioa

## WiFi bidez

- Ukitu hasierako tekla > menu-tekla > **Ajustes del sistema** > **WiFi**.
- Lerratu WiFiren etengailua "Si" aukerara, WiFia pizteko.  
Zure telefonoak detektatutako WiFi sareak haien izenez eta segurtasun-ezarpenekin bistaratuko dira. Baldin eta zure telefonoa zu aurrez konektatu zaren sare batean baldin bada, automatikoki konektatuko da.
- Ukitu sarearen izena, horretara konektatzeko.  
Sarea segurua baldin bada, sar dezakezu pasahitza edo beste egiaztagiri bat (galdetu zure sare-administratzaileari horri buruzko xehetasun gehiago).

## Sare mugikorraren bidez

GPRS/3G/EDGE doikuntzak ez badaude telefonoan aurretik konfiguratuta, zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan jarri behar zara behar duzun konfigurazioa eskuratzeko.

Abiarazi aurretik, zure hornitzailearen informazioa eduki behar duzu.

- Sarbide-puntuaren izena (APN)
- Behar izanez gero, erabiltzaile-izena eta pasahitza
- Zerbitzariaren IPa eta ataka-zenbakia, sareak proxy-zerbitzari bat erabiltzen badu
  - 1- Ukitu hasierako tekla > menu-tekla > **Ajustes del sistema** > **Más...** > **Redes móviles** > **APN**.
  - 2- Ukitu menu-tekla > **APN nuevo**.
  - 3- Ukitu elementu guztiak hornitzaileak eman dizun informazioa sartzeko.
  - 4- Ukitu menu-tekla > **Guardar**.




**Aholkua:** APNren doikuntza lehenetsiak berrezarri nahi badituzu, ukitu menu-tekla > Valores predeterminados APN pantailan

# Play Store-tik aplikazio berriak instalatzea

Milaka joko eta aplikazio daude Play Store-n. Pauso gutxitan deskarga eta instala ditzakezu. Aplikazio eta jokoei buruzko iradokizun edo aholkuak bidal ditzakezu.

Hasi aurretik, mesedez, ziurtatu Googleko zure kontuarekin erregistratu zarela.

- Ukitu hasierako tekla >  > **Play Store**.
- **Play Store** exekutatzen duzun lehen aldia baldin bada, zerbitzuaren baldintzak onartu beharko dituzu.
- Bilatu aplikazioak kategorien arabera edo ukituta.
- Ukitu aplikazioa horri buruzko informazioa ikusteko.
- Ukitu **Descargar** (doako aplikazioak) edo prezioa (ordainpeko aplikazioak). Aplikazioa doakoa ez baldin bada, Googlen erregistratu behar zara zure kreditu-txartelarekin, eta ordaintzeko modua hautatu.

Kontuz: gerta liteke instalatu ondoren aplikazio batzuk zure datu pertsonaletan sartzea. Play Store-k esango dizu zer aplikazio sar daitezkeen zure datuetan. Segitu nahi baduzu, ukitu **Aceptar** eta **Descargar** (doako aplikazioak) edo **Aceptar** eta **Comprar** (ordainpeko aplikazioak).

- Itxaron aplikazioa automatikoki deskargatu eta instalatu arte.

# Zure segurtasuna

	Gidatzen ari zarela, ez egin edo ez erantzun deirik terminalarekin. Ez idatzi mezurik gidatzen ari zarela.		Ez erabili telefonoa zerbitzuguneetan.
	Deiak egitean, telefonoa gorputzetik edo belarritik 15mm-ra izan, gutxienez.		Gailu honek argi distiratsua edo dirdira egiten duena igor dezake.
	Pieza txikiak irentsiz gero, itotzeko arriskua dago.		Ez bota telefonoa sutara.
	Telefonoak hots handia egin dezake.		Ez jarri objektu magnetikoekin kontaktuan.
	Taupada-markagailuetatik eta bestelako gailu mediko elektronikoetatik urrun izan.		Saihestu muturreko tenperaturak.
	Itzali ezazu, ospitaleetan eta osasun-zentroetan itzaltzeko eskatzen denean.		Ez jarri likidoekin kontaktuan. Ez busti telefonoa.
	Itzali ezazu, hegazkinetan eta aireportuetan itzaltzeko eskatzen denean.		Ez desmuntatu telefonoa.
	Itzali ezazu material edo likido leherkorren ondoan zaudenean.		Baimendutako osagarriak bakarrik erabili.
	Saia zaitez telefonoaren mende ez egoten larrialdiko komunikazioetarako.		

# RoHS araudia betetzearen aitorpena

Ingurumen-inkaktuak murrizteko eta bizi garen planetaren ardura handiagoa izateko helburuarekin, dokumentu honen bidez formalki aitortzen da Skate Pro telefonoak (ZTE CORPORATIONek egindakoa) Europako Batasunaren 2002/95/EB RoHS Direktiba (Substantzia Arriskutsuen Murrizketa) betetzen duela substantzia hauei dagokienez:

- Beruna (Pb)
- Merkurioa (Hg)
- Kadmioa (Cd)
- Kromo hexabalentea (Cr (VI))
- Bifenilo polibromatuak (PBB)
- Polibromodifeniloen eterrak (PBDE)

ZTE CORPORATIONek fabrikatutako ZTE Skate Pro modeloak Europako Batasuneko 2002/95/EB Direktibaren eskakizunak betetzen ditu.

## Gailu zaharra botatzea



Produktu batek edukiontzi ezabatu baten irudia badu, horrek esan nahi du Europako Batasunaren 2002/95/EE Direktiban jasotzen dela produktu hori.

Produktu elektriko eta elektronikoko guztiak bereiz botatu behar dira, tokiko agintarietara horretarako ezarritako biltzaile-puntu eta -zerbitzuetan.

Gailu zaharrak behar bezala botatzen gero, ingurumenerako eta giza osasunerako ondorio kaltegarriak eragozten lagunduko duzu.

Produktu hau WEEE Direktiban oinarrituta birziklatzeari buruzko informazio gehiago izateko, bidali mezu elektronikoa bat helbide honetara: [HYPERLINK "mailto:weee@zte.com.cn"weee@zte.com.cn](mailto:weee@zte.com.cn).

# EBko adostasun-deklarazioa

## CE 1588

Honen bidez deklaratu dugu jarraian aipatzen den produktuak

Produktu-mota: WCDMA/GSM (GPRS) banda dualeko telefono mugikor digitala

Modelo-zenbakia: **ZTE Skate Pro**

irradi eta telekomunikazioko ekipu terminalei buruzko direktiba (Europako Erkidegoko 1999/5/EE direktiba) eta bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko direktiba (2004/108/EE) **betetzen dituela**.

Probak eta ebaluazioa pasa dituzten laginak bezala fabrikatu diren ale guztiei aplikatzen zaie deklarazio hau.

Produktuaren adostasun-ebaluazioa (irradi eta telekomunikazioko ekipu terminalei buruzko direktibaren baldintzak) American TCB enpresak (erakundearen zenbakia: 1588) egin zuen, estandar hauen arabera:

<b>Segurtasuna</b>	EN 60950-1:2006/A11:2009
<b>EMC</b>	EN 301 489-1 V1.8.1; EN 301 489-3 V1.4.1; EN 301 489-7 V1.3.1; EN 301 489-17 V2.1.1; EN 301 489-24 V1.4.1; EN 55013:2001+A2:2006; EN 55020:2007;
<b>Irratia</b>	EN 301 511 V9.0.2; EN 301 908-1 V5.2.1; EN 301 908-2 V5.2.1; EN 300 328 V1.7.1; EN 300 440-1 V1.6.1; EN 300 440-2 V1.4.1;
<b>Osasuna</b>	EN 50360:2001; EN 62311: 2008; EN 62209-1:2006; EN 62209-2:2010; EN 50332-1:2000; EN 50332-2:2003;

Fabrikatzaileak du deklarazio honen ardura:

**ZTE Corporation**

---

ZTE Plaza, Keji Road South, Hi-Tech, Industrial Park,  
Nanshan District, Shenzhen, Guangdong, 518057,  
P.R.China

---

*Enpresaren izenean sinatzen duen pertsona baimendua:*

Xu Feng      ZTE Corporation-eko Kalitate Saileko zuzendaria

---

*Izena eta postua enpresan*

Shenzhen-en, 2012ko uztailaren 20an



*Lekua eta eguna*

*Legezko balioa duen sinadura*